

CRISTINA BRUNETTI Y GAYOSO DE LOS COBOS ANDREA (1831-1914)
Mandas y Villanuevako dukesa eta Belalcazarreko kondesa.

FERMÍN DE LASALA Y COLLADO JAUNA (1832-1917)
Donostiaren ordezkaria Batzar Nagusietan (1957), Gipuzkoaren ordezkaria Corte Nagusietan (1857-1864), Gipuzkoako diputatu nagusia (1862-1863), Sustapen ministroa (1872), Senatuko presidenteordea (1883-1885), enbaxadorea Parisen (1890-1892), ahalorde osoko ministroa Britainia Handiko gortean (1900-1905) eta Estatu Kontseiluko presidentea birritan.



CRISTINA ENEA PARKEA

Uda 7:00 - 22:00

Negua 7:00 - 21:00

CRISTINA ENEA FUNDAZIOA

Astelehenetik ostiralera: 9:30-18:00*
Larunbatak: 10:00-14:00 / 15:00-19:00
Igande eta jai-egunak: 10:00-14:00

(*) Ordubete gehiago ekainean,
uztailean, abuztuan eta irailean.


www.cristinaenea.eus



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



MANDASKO DUKE-DUKESAREN ONDARREA



➤ MANDASKO DUKE-DUKESA ➤

Fermín de Lasala y Collado jaunak eta Cristina Brunetti y Gayoso de los Cobos andreak osatutakoa garai hartako bikote baten adibide ona da, negozioek eta politikak aberastutako goi burgesiako kide baten eta aristokrata europar baten artekoa. Cristina andreak, besteak beste, dukesa eta Espainiako Handitasuna tituluak eman zizkion ezkontzari, eta Fermin jaunaren esperientzia politikoa eta ikuspegia erabakigarriak izan ziren Cristina Enea non sortu aukeratzeko.

Ezkundu bezain laster, bikotea Donostiara etorri zen bizitzera, dukearen jaioterrira, alegia. Garai hartan, Maria Cristina erreginak udak Donostian igarotzen zituen, eta Espainiako familia aristokratiko handiak beren aisialdirako etxeak bertan altxatzeko lursailak eskuratzen hasi ziren. Mandasko duke-dukesa ez ziren korronte horretatik kanpo geratu, eta, 1863tik aurrera, lurrak erosten hasi ziren jauregia eraikitzeko.

➤ PARKEA ➤

Cristina Eneako egungo lurretan Urumearen azken meandroan kokatutako baserri, finka eta baratzeak zeuden lehenago. Mandasko duke-dukesak diru kopuru handiak inbertitu zituzten, besteak beste jauregi bat, ontziraleku bat, zalditegi batzuk, zaindariarentzako etxe bat eta atezaindegi bat eraikitzeko adinako lursaila erosteko. Nahiz eta bietako inork ez zuen bere proiektua erabat burututa ikusiko.

Lehenengo lanak lorategiak diseinatu eta hornitzeko egin ziren. Duke-dukesak ez zieten gastuei erreparatu, eta zuhaitz eta landare apaingarrien ale exotiko eta garestiak erosi zituzten. Horien artean, Gingko biloba bikain bat, Libanoko zedro bat, edo sekuoia bat.

➤ JAUREGIA ➤

Lursailak landaretza izan zuenean, garai hartako “ingeles erako” diseinuarekin, duke-dukesa eraikinak eraikitzen hasi ziren. Lehenengoa zaindariaren etxea izan zen, lorategien etengabeko zaintzaz arduratzen zen pertsona bertan biziko baitzen. Lehenengo eraikuntza hori ondoren duke-dukésaren egoitza bihurtuko zen, goiko pisuak gehitu zitzaizkionean, eraikina Europa Erdialdeko landa-estiloko jauregi dotore bihurtuz.

Ondoren, jauregiaren ondoan, sukaldeetarako pabiloi bat eraiki zuten, eraikin nagusitik bereizita, sua batetik bestera barreiatu ez zedin. Bi espazioak lurpeko pasabide estu baten bidez lotu ziren, eta zerbitzariak eta langileak bertatik igarotzen ziren. Geroxeago, kapera txiki bat atxiki zitzaion, bere kanpandorre zilindriko estilizatuarekin.



➤ ONDARREA ➤

Duke-dukésakezzuten ondorengorikizan, eta, beraz, testamentuan xedatu zuten, haiek hiltzean, finkaren gozamina familiaren esku geratuko zela, eta, ondoren, Donostia hiriari emango zitzaiola. Hala izan zen, nahiz eta handik urte gutxira familiak bere eskubideak hiriaren mesedetan lagatzeko borondatea agertu zuen. Udal gobernuak 1926ko ekainaren 2an onartu zituen eskubide horiek.

Nolanahi ere, duke-dukésak zenbait baldintza ezarri zituzten beren ondareari buruz. Besteak beste, Cristina Enea izena ez aldatzea eta haren erabilera pasealeku publikorako soilik izatea. Pilota, futbola, boloaketab. Debekatu zituzten, bai eta gisa guztietako otorduak, bazkariak eta askariak ere. Era berean, zehaztu zen Cristina andreaken erretratua Madrildik Cristina Eneara ekarri eta etxeko lehentasunezko leku batean kokatzea.

2005. urtean lorategiak hobetzeari eta jauregia berritzeari ekin zitzaion. Jauregia Cristina Enea Fundazioaren egoitza da 2008tik. Cristina Enea, XIX. mendeko familia aristokratiko baten ametsa izan zena, gaur egun donostiarrek eta bisitariek gehien estimatzen duten parkeetako bat da, eta gaur egunera arte naturarekin eta ingurumenarekin lotutako ondare gisa iritsi da.